



### Esperientzia adierazgarriak

Evo Morales presidentea Elikadura Subirannotasunaren Proiektuaren ekitaldian



### Iparra galdu gabe

Emakumeen Mundu Martxaren Istanbuleko topaketa



### Berriak

Nazioarteko Generoaren Foroa Bilbon



### Argitalpenak

Nekazarien borroak; proposamenak, sareak eta aliantzak

# Lankidetzaren berri baterantz?



Javier Erro Sala  
Mundubat-eko kidea

**K**risia dela eta, hainbat gobernu Garapenerako Laguntza Ofizialaren baitan ezarri dituen murrizketak interpretatzeko orduan, bi irakurketa desberdin eman daitezke.

Lehendabizikoak, Europako gobernuen artean eman denak, garapenerako nazioarteko lankidetzaren mailan ezer ez dela aldatu erakutsiko ligoke. Honen arabera, paliatzen ari garen krisiak etorri zen modu berean alde egingo du. Aurreikusten da beraz, ekaitzak alde egiten duenean baretuko direla gauzak eta Garapenerako Laguntza Ofizialak ere gora egingo duela zenbait gauza berrikusi beharko direlarik.

Bigarren irakurketaren arabera, egoera ez da horren ona izango. Krisiari aurre egiteko bideak zerbait ilunagoa ezkutatu du. Guztiontzako onurak ekarriko dituen sistema baino, gehiago sozialak eta gazteak zapalduko dituen egitura sendotzen ari da. Honen arabera beraz, oraingo krisiaren ondoren handiago izango den beste bat etorriko da, kontrol gabeako merkatuak ez dituelako arau gehiago onartzen. Gerorik gabeko orainaldi honetan, garapenerako nazioarteko laguntzaren zereginak berrikusi eta berrantolatuko dira, justizia eta guztion artean mundu berri bat eraikitzeko nahia alde batera usteko.

### Badirudi:

Oinarrizko aldaketa baten aurrean gaudela. Europak hartutako erabakiekin, tradizionalki izan dituen aldarrikapen sozialak eta honen oinarrian dagoen sistema alde batera utzi dira. Garapenerako Laguntza Ofizialak jasan duen murrizketa ez da nolanhiko erabakia izan. Gerora hartuko diren neurrien erakusle da. Gizatasunari uko egin zaio eta garapeneraren alde dagoen oraingo sistema eta gizartea ere baztertu dira.

Kooperazio eredu berri bat eraikitzen ari da. Berdintsuak diren bi proposamen aurkeztu berri dira. Erresuma Batuko kontserbadoreen buruak "Gizarte Handi" izeneko proposatu du. Cameronen giza filantropia (boluntarioen esku legokeena) proposatu du eta honek inbertsio publikoen galera leunduko luke. Bigarrena, Bill Gates eta beste 40 aberatsek proposatu dute eta duten diruaren erdia (675.000 milioi euro) karitatea sustatzeko erabiliko luke. Elkarlanerako eta garapenerako Europen erabiltzen diren ereduaren ordezkapena al da hau? Eta honen ordeztatu Estatu Batuetan erabiltzen diren filantropia eta karitatea erabili nahi al dira "solidaritate" funtzional eta globalizatu bat ezartzeko merkatuan?

Solidaritatearen globalizazioa oinarritik deuseztatu nahi duen ahalegin honek, elkarlan edo kooperazioaren aro berri bat ekarriko luke. GGKE, mugimendu sozial eta gizarteari dagokie mehatxua aukera bihurtzea. Hauen lana solidaritatea proiektu politiko moduan eta garapenerako nazioarteko elkarlana berreskuratzea litzateke. Honako galderatik eratorri beharko lirateke erantzunak: zein da politikaren esparrua elkarlanaren baitan eta nola politiza daiteke jada politikoa ez dena?

"Politikaren" esparru hori berreskuratzeke, informazio eta komunikazioaren teknologiatik eta kultura digitalaren egitura horizontaletatik egin behar da lan.



Esperientzia adierazgarriak

## Evo Morales presidentek Elikadura Subiranotasunaren aldeko Proiektu Munizipalen Topaketa Nazionala itxi zuen "Las Bartolinas" eta Mundubatek eginiko proiektua da

Ekainaren 29 eta 30ean La Paz hirian Elikadura Subiranotasunaren aldeko Proiektu Munizipalen Topaketa Nazionala ospatu zen. Topaketa hau "Elikadura segurtasunaren eta aginte munizipalaren aldeko, Boliviako landetako emakume indigenen elkarlanerako indartzea" izeneko proiektuaren baitan kokatzen da. "Bartolina Sisa" izeneko Boliviako Emakume Nekazari Indigenen Konfederazio Nazionalak antolatu zuen topaketa, Mundubat-ekin batera, eta Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren diru-laguntzaz.

Topaketa honetan 9 eskualdetako kideak, Exekutiba Nazionalako, Konfederazioko eta hainbat udalerrietako buruzagiak egon ziren.

30ean, Evo Morales jaunak, Nazioanitzeko Estatuko Presidenteak, to-

paketa itxi zuen, Exekutiba Nazionalako Idazkaria den Leonilda Zurita andrearen eskutik, Elikaduraren



Segurtasunari buruzko 177 proiektu biltzen dituen liburua jaso zuelarik. 9 departamenduetan dauden 36 udale-

rietako emakumeek egindako proiektuak ziren liburuan bildutakoak.

Proiektu honek, Boliviako nekazarien komunitateek dituzten elikaduraren segurtasunaren gaineko estrategiak eta kudeaketa hobetu nahi ditu. Horretarako, herrialde osoan antolatu ziren 36 mintegiak, 1620 emakumeei ikastaroak eskaini zitzaizkien legedi munizipal, deszentralizazio, Giza Eskubide (emakume eta herri indigenei buruzkoak batez ere), elikadura segurtasun eta proposamenak modu egokian aurrera eramateko sortu ziren proiektuen gainean.

Elikadura segurtasuna eta gestio munizipalaren gaineko Boliviako emakume indigenek aurkeztutako proposamenak bildu dituen Topaketa Nazionalarekin eman da bukatutzat proiektua.

## El Salvador. Zacatecoluca eta Tecolucako emakumeen parte-hartze politikoa

Aragoiko Gobernuak eta Zaragoza Udalak babestutako "Las Melidas"-en ekimena da

Melida Anaya Montes, Las Melidas, elkarteak Zacatecoluca eta Tecoluca udalerrietan egiten du lan, emakumeek politikan eta hiritartasunean duten parte-hartzea sendotzeko. Mundubat Fundazioak, Zaragozako Udalak eta Aragoiko Gobernuak babestu dute proiektua. Zenbait oinarrizko egitura indartu nahi izan dira, horien artean komunitatean emakumeak antolatzeko duten aukera, eremu lokaletako lidergoa eta udaletako antolakuntza egiturak.

Prestakuntza prozesu honek emakumeak gobernu munizipal eta lokaletan parte hartzera bultzatu ditu. Egun Zacatecolucako Kontzeju Munizipalean 7 emakume daude, Tecolucakoan, berriz, 4, eta azken hauetako bi bigarren agintaldian. Emakumeek esaten dutenez "Etxetik irten ez ziren pertsona lotsatiak izatetik,



buruzagiak izatera pasatu dira", azken batean erabaki estrategikoak har ditzaketen emakumeak dira orain.

Prozesu honen baitan, bi udalerrietako emakumeen elkartei prestakuntza

eskaini zitzairen. Hau horrela, Zacatecolucako Esperanza Jólve elkarteak besteak beste abokatu talde bat eta 37 komite komunalek biltzen dituzten 500 kide ditu. Era berean, Tecolucako Emakumeen Elkarteak 72 komiteetan biltzen diren 600 kide ditu.

Zacatecoluca eta Tecolucako emakumeek oztupo askori behar izan diote aurre orain politikan duten organizazio, garapen eta parte-hartze eskubideak lortzeko. Oztopok gizarteak berak, familiek eta gizon askok ezarri dituzte. Orain ostera, lortutako eskubideak defendatzen eta aldi berean erabakitzen hasi dira, batez ere gainontzeko emakumeek familia barneko biolentziari aurre egiteko eta kargu publikoak eskuratzeko, horrela emakumei onurak ekarriko dizkieten erabakiak hartu ahal izateko.

Iparra galdu gabe



EUSKAL HERRIKO MUNDU MARTXA

## 2010 arrazoi baino gehiago ditugulako aurrera egiteko

Istanbulen eginiko Emakumeen Mundu Martxan parte hartu zuen Mundubatek

Ekainaren 29 eta 30ean, 22 herrialdeetatik etorritako 500 emakume Istanbulen antolatutako Emakumeen Mundu Martxan bildu ziren. Bertan, txirotasuna indartzen duen sistema neoliberalaren eta patriarkalaren amaiera aldarrikatu eta berdintasunean eta justizian oinarritutako mundu berri baten sorrera eskatu zen. Martxaren Euskal Herriko plataformaren parte den Mundubat erakunde ere topaketa feminista honetan egon zen.

Aurten Mundu Martxa hirugarrenez ospatu da. Martxoaren 8tik 13ra izandako mobilizazioetan Euskal Herriko kaleak kolore moreaz busti ziren. Topaketa kontinentalak izan ondoren -Istanbulkoa Europako kasuan- Kongoko Errepublika Demokratikoan mobilizazio eta aldarrikapen feministaz beteriko urte oso bati amaiera emango zaio.

Istanbulen eztabaidak eta hitzaldiak pluralak eta desberdinak izan ziren, beti ere Martxaren oinarrian dauden lau atalei buruzko gaien ingurukoak: Guztion ongia eta zerbitzu publikoak; emakumeen lana; bakea eta desmilitarizazioa; eta biolentzia matxista



Mundu mailako krisi ekonomikoa eta Europako gobernuak ezarritako murrizketak izan dira eztabaida gehien oinarrian. Martxako emakumeok, mugimendu sozialen azken 50 urteetako lorpenen aurka egiteko krisi ekonomikoaren aitzakia erabiltzen ari diren Europako gobernu eta instituzio finantzarioak salatu ditugu. Martxak murrizketak bultzatzen dituzten gobernuak salatu ditu. Gastu sozialak murriztu eta sektore publikoaren pribatizazioa bultzatzen den bitartean, Bankuei dirutza eman diete eta gastu militar handiak mantendu dituzte. Martxako emakumeok, krisiaren aurkako mobilizazioetan feminismoaren aldarrikapenak indartzearen alde gaude, orain baita garaia kapitalismoaren, patriarkatuaren eta arrazakeriaren aurka indarrak biltzeko.

Sendoki sinesten dugu mundua aldatu behar dugula emakumeen bizitza ere aldatzeko. Horregatik aurrera jarraituko dugu emakume guztiak libre izan arte; 2010 arrazoi baino gehiago ditugulako aurrera jarraitzeko.

*Beatriz de Lucas eta Juana Canga,  
Mundubat-eko Generoaren taldeko partaideak*

## Parte-hartze bikaina Giza eskubideen eta gatazka armatuen gaineko jardunaldietan

Ekainean eginiko Giza eskubideen eta Gatazka Armatuen gaineko jardunaldietan giza erakunde eta pertsona askoren partaidetza eta komunikabideetan oihartzun handia izan genuen.



Berriak

# 12 herrialdetako emakumeen erakunde Bilbon bilduko dira emakumeen subiranotasunaz aritzeko asmotan

Datorren irailaren 30etik aurrera Hego-Ipar Topagunean

Egunero emakumeek euren giza eskubideen zapalkuntza pairatzen dute: biolentziarik ez jasateko eskubidea, lan duina, lurra eta beste ondasun batzuk izateko eskubidea, politikan berdintasunez parte hartzeko eskubidea, sexualitate oso eta libre bat izateko eskubidea... Patriarkatuak emakumeekin erabiltzen duen biolentzia fisiko zein estrukturalak, euren gorputz eta bizitzen gaineko subiranotasuna ukatzen du.

Hala ere emakumeak ez dira inoiz geldi egon sistemak ezarritako zapalkuntzen aurrean. Hegoaldeko zein Iparraldeko emakumeak ondo antolatu dira euren eskubi-



deen alde egiteko. Mundubat-ek urteak eman ditu gizartea aldatzeko eta eredu berriak eraikitzeko borrokan ari diren emakume eta erakunde feministen alde.

Datorren irailaren 30ean eta Urriko 1ean eta 2an, Bilbon "Emakumeen lurraldeak, Lurralde okupatuak" izeneko nazioarteko topagunea egingo dugu. Bertan, 12 herrialdetako

erakundeek emakumeen bizitzen eta gorputzen subiranotasunaren gaineko gogoetak aurkeztuko dituzte. Esperientziak elkartrukatzeko, eztabaidatzeko, Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen arteko elkarlana indartzeko eta giza eskubideen aldeko agenda solidario bat sortzeko aukera ezin hobea izango dela espero dugu.

Argitalpenak

## NEKAZARIEN BORROKAK; PROPOSAMENAK, SAREAK ETA ALIANTZAK

Ale honen bitartez, EHNE nekazal sindikatuak eta Mundubat-ek Elikadura Subiranotasunaren gaineko proposamenak aurkeztu nahi dituzte. Nekazarien komunitateetan kalte izugarriak eragiten dituen gaurko industrial eta nekazal ereduaren aurka jarduteko elkarlana indartu nahi dugu. Maila global batetan eredu hau, krisi energetikoaren, krisi sozialaren (pobrezia) eta krisi ekolo-



gikoaren erantzulea ere bada. Eredu honen aurka, zenbait pertsonen eta elkarteren esperientzia eta tesiak aurkeztu dira. Hauek, lur-jabetza, ura, haziak eta elikadura izateko eskubidea defendatzen dute; beti ere biodibertsitatea eta lurra defendatuz

Eskatzeko:  
emintegi@mundubat.org  
edo (+34) 944162325 telefonoa



Bat egin! Izan bazkide

Mundubat GGKE / Sombrerería, 2 3º / 48005 BILBAO / (+34) 944 162 325  
mundubat@mundubat.org / www.mundubat.org